

MUko Bibliotekak 60 ikerlari eta irakasle baino gehiago bildu ditu "Publicar con Springer" tailerrerako

2011/11/23

MUko Bibliotekak eta I+G Koordinazioak, Springer argitaletxearen laguntzarekin, 60 ikerlari eta irakasle baino gehiago bildu dituzte *Publicar con Springer* tailerrerako, Mondragon Goi Eskola Politeknikoan burutu da.

Mondragon Unibertsitateko irakasleei eta ikertzaileei zuzenduta, talde handi honen aldizkari zientifikoetan publikatzeko aholkuak eman dituzte.

Nathalie Jacobsek, hango argitaratzailea, eman ditu azalpenak, parte hartzaileak hurrengo kontuetan bideratzeko asmoarekin: argitaletxeen irizpideak artikuluen hartzea eta onarpena prozesuetan; argitaratzeko aholkuak, era tradizionalan edo sarbide irekian; "open choice" aukeraren kostua, egile edo erakundearentzat; egile-eskubideak eta editorialaren eskubideak...eta abarrekoak.

Springer argitaletxearen aurkezpena gogoratu nahi baduzu, Bibliotekaren webgunean aurki dezakezu: *Nola argitaratu-Springer kasua*.

